

"Ene aberri..."

Euskaldunon Egunkaria, 1992-10-13: 2.

Geure haurtzaroko abestiak izan dira geure gomutako dotrina politikoa. Herri bakoitzak badu berea duen abertzaletasuna adierazteko bidea: Espainiak eta Frantziak garailearenak dituzte. Geure herri zapalduak oso bestelakoa izan du, eta, gezurra badirudi ere, haienak gorroto gehiago eragin dute geureak baino. Hara oraindik odola darion "Allons enfants de la Patrie" eta gure "Gernikako Arbola" herrikoia pakea dariola; hara "Gora ta gora Euskadi" politikoa eta gaur ofiziala, sufrimenduko gurutzea duela helburu, eta hara defentsarako sortu zen "Eusko gudariak gara"..., abestian aipatzen den odola geuk eskaintzen duguna besterik ez dena.

Zerbait esan nahi dute geure aintzindari diren enenplu hauek.

Arerioak erakutsiko digu gure pakea zer den! Gero, geuk ikasi genituen abesti abertzaleak izan dira euskal politikako dotrina; ni neu Sabin Aranak gure familian (aitona, aita eta ni) eragindako hirugarren belaunaldikoa naiz, gerrondokoa, eta, beraz, "Ene aberri laztana" eta "Laster dator eguna" otoitza bezala abesten genituenekoa. Gaur nire belaunaldiko abertzale batzuei galdetu nahi diet, geuk bilatzen eta espero genuen "Egun" horri noiz arte utzi behar diogu zain, itxaroten? Ba dirudi nire lagun hauek egindakoarekin nahikoa dutela, guk aldarrikatzen genuen "askatasuna" hain gertu ikusi eta hain urrun jartzen digutenean oraindik. Noizko utzi behar dugu gure ahalegin nagusia, demokratikoa, gutxiengoa, baketsuena: munduko herri guztien autodeterminazioa firmoki Euskal Herriarentzat ere eskatu gabe?!